

Doinu zaharren emakumezko dantza txapelketa jokatu da gaur Hondarribian

Bakarkako sariketa da, Euskal Herri mailakoa, eta hemezortzi dantzari lehiatuko dira

Lorea Agirre / Donostia

Emakumezko dantzariak bakarka aritzen diren dantzak dira *doinu zahar* deiturikoak, aspaldian, beste euskal dantza batzuen mesedetan, baztertuta geratu direnak. Txapelketa honen xedea herrikoi kutsuko dantza mota horiek berreskuratzea da. Gaur bigarren aldikoz jokatu da txapelketa.

GAUR 11:00etan abiatuko da doinu zaharren txapelketa, bigarren aldikoz. Hondarribiko Hondartza kiroldegian jokatu da, eta 18 dantzari irtengo dira txapelaren bila. Euskal Herri osoko sariketa izanagatik, gipuzkoarrak dira lehiakide guztiak: Donostiakoak Monica Bañales, Miren Illarreta, Haizea Poza eta Ainara Vazquez; Errenteriakoak Nagore Indakoetxea, Maite Lekuona eta Nerea Vesga; Legazpikoak Maider Fernandez, Miren Makibar eta Eider Mujika; Lezokoak Itxaso Irastorza, Leire Irasuegi eta Josune Rodriguez; Irungoak Itziar Arretxe, Miren Bermudez eta Amaia Otxoa de Zabalegi; eta Hondarribikoak Nerea eta Nagore Arbe-laitz. Itziar Arretxe da iazko txapeladuna eta, beraz, txapela defendatzera irtengo da taulara.

Eguerdian finala

Txapelketa bi zatitan banatuko da. Lehenengo *Ehun dukat* izeneko doinua dantzatu beharko dute dantzari guz-tiek, eta hortik hamar dantzari sailkatuko dira eguerditi- aurrera jokatu den finalerako. *Erribera* eta *Hondarribi txikia* doinuak dantzatu beharko dituzte. Epai-mahaiak erabakia hartu bitartean, iaz gazte mailan irabazle izandako dantzarien saioa eskainiko da, eta ondo- ren Kemen dantza taldeak Luzaidoko inauteriko dan- tzak dantzatuko ditu.

Horrenbestez amaituko da Euskal Herrian egiten den emakumezko dantzarien arteko lehiaketa bakarra. Izan ere, gizarte dantzak joan den aspaldian ahazturik geratu diren piezak dira, eta horien artean *doinu zahar*ak deituak. Kemen dantza talde- ko lehendakari Patxi Pagolak



BOB EDME

Dantzari Txiki Egunak 500 dantzari bilduko ditu bihar Errenterian. Dima, Iruñea, Altsasu, Beasain, Lasarte, Añorga, Urretxu, Azkoitia eta Ordizia dantza taldeetako dantzariak Errenteriako kale- etan ibiliko dira egun osoan. 13:00etan, Zumardian, denak elkarrekin dantzatu da.

adierazi duenez, erritual kutsuko eta taldean dantzatu beharreko dantzak dira dan- tza talde gehienek erreperto- rioa osatzen dutenak. «Horre- kin, Iztueta maisuak utzitako ondarearen zati handi eta garrantzitsu bat baztertua izan da folklorea lan egiten dugunon artean», dio Pago- lak.

Juan Ignacio Iztuetak 1824an *Gipuzkoako dantza gogoangarriak* liburua idatzi

zuen, eta bertan 36 dantza jasotzen dira; horietatik 30 gizonetzkoek eta emakumez- koek elkarrekin dantzatzeko- ak dira.

Bazterketa horren ondorio bat zera da: «Euskal folklo- ren barruan, emakumea ohiko dantzetatik kanpo utzi duen topiko horrek. Hori kasu batzuetan egia da: adi- bidez, dantza erritualetan emakumeak ez du garrantzi handirik, erlijio-gerlari-miti-

ko kutsua duten dantzetan gizonak bakarrik hartzen dute parte. Baina badaude beste dantza mota batzuk, kutsu sozial-herrikoia dute-

pioa lantzeko aukera ere.

Doinu zaharrek, gizaldiz gizaldi eta ahoz aho, guraso- endik seme-alabengana, iga- ro diren koplak dira.

LASARTE-ORIA

BENITO LERTXUNDI

**2.000 / Maiatzak 5 / 20:00
SARRERA: 500 pza.**

**MANUEL LEKUONA
KULTUR ETXEA**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultur Departamentua
Lasarte-Oriako Udala



ANDOAIN
"JOHN KIRKPATRICK"



**MAIATZAK 6 (larunbata) - 20:00etan.
LA SALLE ANTZOKIAN
800 pta. / 640 pta. (Gazte txartela)**

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea.
Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Diputazioa.